

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patxi Mugerza

*Donostia,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Azkoitin jaio zen, gerrak hartaratuta, baina Ulian bizi izan zen, Xantiene etxean. Sei senide ziren. Ama donostiarra zuten. Aita, Usurbilgoa; gudari ibilia, Ondarretako kartzelan egon zen preso. Mariaren Bihotza ikastetxean ikasi zuen mutikotan, giro erabat erdaldunean. Han egiten du lana aspalditik, Donostiara bueltatu zenetik. Buru-belarri jardun zuen ikastetxea ikastola bihurtzeko lanetan. Apaiza da. 15-16 urterekin konturatu zen fraide izan nahi zuela, eta hamar urte inguru egin zituen seminarioan, hainbat tokitan.

Zintak

DON-031

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-10
- **Iraupena:** 115 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Villa Xantiene

- **Erref:** DON-031/002
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:03:14. **Bukatu:** 00:05:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Donostiara itzuli zirenean, etxea hutsik topatu zuten, gerra garaian hamaika etxe hustu zituzten Donostian. Ulia inguruan zuten etxea, Villa Xantiene.

Transkripzioa

- Eta gero handikan Donostiara etorri giñan. Bueno, etorri giñan... ez dakit. [Gure amak] hartu ta, ba, ez dakit, Zarautzera jungo giñan ta gero Zarautzetik ya... nazionalak pasa zian, Donostiara bueltatu zian. Etxera

alleatu zieneko ya etxea hustuta zeon, dana, gauza guztiak lapurtuta. Badakizu, garai hartan... Nik ez dakit iñork ote dakien, ez dut uste, baiño Donostiako hainbat pisu lapurtuta, hartu ta altzairuak eta danak kamioietan sartu ta Nafarroa aldera eraman. Hori oso arrunta izan zen. Askotan gertatu zen.

- Eta zuen etxia nun zegon?

- Hemen, Ulia alden. Hemen, Ulian. Nola da hori...? Oain Zemoriya kalea da. Hemen, villa Xantiene. Han bizi giñan gu. Nere gurasoak han bizi [...].

- Xantiene da?

- Xantiene. Ta gaur egun´e halaxe da. Villa Xantiene. Eta ni Ulia mendikoa naiz, horkoa naiz. Neretzako ya, gu txikitan, ezta, Gros ta hau beste mundu bat zan guretzako. Ez... ezaguna bai, baiño gurea zen Ulia.

- Eta hori, etxe hori, berdiña zan? oin berdin jarraitzen du?

- Oin ari dira pintatzen, beste kolore baten; txukuntzen ari dira. Hori zen garai bateko... bueno, nik ez dakit, baiño nik entzunda dakat, baiño ez dut uste hori egia denik, horrek baserri antza badu. Hori, ikusten danez, garai bateko baserria da, baserria zen. Baiñon baserria, ikusten danez, sendoa; sekulako hormak dauzka. Eta historia ze izan dan? Jainkoak daki. Baiño etxeko paretan badaude... badaude... aspillerak nola izaten dian? tiroak botatzeko zulo hoiek? zea, hoietako... badaude. Eta oaindik hor ikusten dia. Eta hor bizi giñan. Baiño gero hori, bai, garai baten... ez dakit Okendo etxekoa edo ez dakit zeñena izango zen, Okendona esaten zuten. Eta, bueno, nere gurasok hartu zuten pisu bat eta hor bizi izan gea beti.

2. Ulia ingurua

- **Erref:** DON-031/003
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:05:39. **Bukatu:** 00:08:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ordutik baserri asko desagertu dira Ulia inguruan, eta aldiz larreak eta baratzeak zeuden tokian eraikin berri ugari eraiki dituzte.

3. Emakumeak alarguntzean

- **Erref:** DON-031/004
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:12:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna

Laburpena:

<p>San Antonio Abad ospitalean gertaturikoak kontatzen ditu Patxik. Frankismo garaian, emakume asko alargun geratu ziren, ezertxo ere jakin gabe. Asko Ondarretako espetxean bertan fusilatu zituztelako eta beste batzuek, berriz, egoera larrian ospitalera eraman eta bertan hil zirelako. Liburuak eta abarrak aztertuz, gerora jakin ziren halako kontuak.</p>

4. Jaiotzak San Antonio Abad ospitalean

- **Erref:** DON-031/005
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:12:27. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

<p>Heriotzekin ez ezik, jaiotzekin ere desoreka nabariak izaten ziren ospitalean. Jendea kontu eske joan ohi zen, bere gurasoak ez zirelako bere benetako gurasoak, eta abar.</p>

5. Zerbitzuak Gros inguruan

- **Erref:** DON-031/006
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:15:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Donostia zabaltzen hasi zenean, zerbitzuak eta halakoak Gros inguruan kokatu zituzten; hiltegia, 'labaderoa'... Emakume askoren lana, dirudunen arropak hartu, eta Txofreko garbitegia haiek garbitzea izan ohi zen.

6. Groseko fabrikak

- **Erref:** DON-031/007
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:15:13. **Bukatu:** 00:19:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak

Laburpena:

<p>Garaje Garnier, Garaje Moderno, Garaje Universal, Fundiciones Múgica, Ascensores Muguerza... Gros langile auzoa zen, fabrikaz ta langileen etxebizitzaz josia zegoen. Denda batzuek ere baziren, baita zezen plaza ere.</p>

7. Ogia estraperloan

- **Erref:** DON-031/008
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:19:28. **Bukatu:** 00:20:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Sei senide ziren, bost mutiko eta neska bakarra. Jatekoa lortzeko estraperloan-eta ibili ohi ziren. Ogia lortzeko ere lanak izaten zituzten, Grosen baziren hainbat emakume erdi izkutuan ogia saltzeaz arduratzen zirenak, eta haiei erosten zieten.</p>

8. Ekonomato militarra

- **Erref:** DON-031/010
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:21:08. **Bukatu:** 00:22:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika

Laburpena:

<p>Groseko azokan saldu ohi zuten, besteak beste, estraperloko ogia. Polizia etortzean, korrika alde egin behar izaten zuten. Donostian ekonomato militar bat ere bazen ordea, eta dirua eta kontaktuak izanez gero, olio eta beste hainbat elikagai eskuratzeko aukera izaten zen.</p>

9. Ama donostiarra, aita Usurbilgoa

- **Erref:** DON-031/012
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:27:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ama donostiarra zuen Patxik, Okendo kalean jaioa, eta amaren gurasoak Astigarraga eta Villabonakoak. Aita Usurbilgoa zuen, eta bere gurasoak, Zumaia eta Meagas ingurukoak. Ezkondu zirenean, Donostiara joan ziren bizitzera, Zabaleta kalera lehenengo, eta Uria aldera gero.

10. Igogailu fabrikan

- **Erref:** DON-031/013
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:27:01. **Bukatu:** 00:29:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Aitak igogailuen fabrikan egiten zuen lan. Francoren fabrika

militarizatzeko eskariari uko egin izana gogotik ordaindu zuten. Piezak lortzeko, benetako estraperlistengana jo behar izaten zuten.</p>

11. Beldurrez

- **Erref:** DON-031/014
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:29:14. **Bukatu:** 00:32:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Zaila izaten zen kalean norbaiti hitz bat euskaraz entzutea. Beldur handia zegoen, espetxeratze eta fusilamendu ugari izan baitziren garai hartan.</p>

12. Aitaren espetxeratzea, El Duesotik Ondarretara

- **Erref:** DON-031/015
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:32:04. **Bukatu:** 00:34:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Eusko Gudarostea Laredon errenditu zenean, El Duesoko espetxera eraman zuten aita. Askatu eta Donostiara joatean, auzokide baten salaketa zela eta Ondarretan espetxeratu zuten, mareak gora egiten zuenean ura ziegearaino sartzen zitzaizalarik.

13. Udara Asteasun

- **Erref:** DON-031/016
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:34:38. **Bukatu:** 00:36:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Franco Donostiara joaten zenean, aita Ondarretako espetxera eramaten zuten, eta hori ekiditeko Asteasun igarotzen zuten udara.

14. Karlistadetako kontuak

- **Erref:** DON-031/017
- **Iraupena:** 0:05:16. **Hasi:** 00:36:06. **Bukatu:** 00:41:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskaraz aritzeak zigor zorrotzak zekartzan, gerraostean. Amonak -haiek ere gorriak ikusiak karlistadetan- ba omen zekizkien gerrako hainbat abesti euskaraz. Santa Cruz apaizari eta Karlistadei buruzko kontuak.

15. Amonaren abestia

- **Erref:** DON-031/018
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:41:22. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

Amonari ikasitako abesti bakarra du gogoan Patxik. Karlistadei buruzkoa da.

16. Amona Joxepa espetxera

- **Erref:** DON-031/019
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:46:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Amona Joxepak ez zekien gaztelaniaz, eta espetxera eraman zuten bilobei euskaraz hitz egiteagatik. Familian sufrimendu handia izan zuten, eta amona penaz hil zela dio Patxik, gerra garaian.</p>

17. Argi izpiak, ilunetan

- **Erref:** DON-031/020
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:46:33. **Bukatu:** 00:49:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

40ko hamarkadan giro iluna zen nagusi Donostian. Iluntasun hartan, gogoan du argi pixka bat ikusi zuten unea, abertzaleak 'Radio San Sebastián'-en sartu zirenekoa, hunkigarria izan zela dio.

18. Corazón de María ikastetxean

- **Erref:** DON-031/021
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:49:30. **Bukatu:** 00:50:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Corazón de María ikastetxera joan zen Patxi. Gela guztietan zegoen Francoren argazkia, goizero: '¡Arriba España, viva Franco!'

oihukatu behar izaten zuten.

19. Bertako monja eta fraideak Ameriketara

- **Erref:** DON-031/022
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:50:47. **Bukatu:** 00:52:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Bertako monja eta fraideak Ameriketara bidali zituzten, misioetara, eta Francoren aldeko espainiarrak ekarri zituzten hona.

20. Ikastolak

- **Erref:** DON-031/023
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:52:29. **Bukatu:** 00:56:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Elvira Zipitria, ikastetxe desberdinak, Ikastolen mugimendua... aipatzen ditu. Ikastolak bisitatzea gustuko zuen Patxik, eta bera eta beste fraide bat Andoaingo ikastolara bisitan joan zirenekoa kontatzen du.

21. Parrokiako ikastola txikia

- **Erref:** DON-031/024
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:56:49. **Bukatu:** 01:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Parrokian ikastola txiki bat zuten, legalitatearen mugen barruan sartzen zen eta ixtear zegoen ikastetxea, pixkanaka ikastola bilakatu zuten, euskaraz funtzionatuko zuena gero. Istilu ugari izan zituzten, batez ere gurasoen aldetik.

22. Ama etxearen agintean

- **Erref:** DON-031/025
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 01:00:30. **Bukatu:** 01:04:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Garai hartan oinarritzko hezkuntza soilik jasotzeko aukera zuten Donostian. Seminarioa joateko asmoa azaldu zuen etxean, azken hitza amarena izan zelarik. Etxe barruko erabakiak amaren esku egon ohi ziren, etxetik kanpokoak, berriz, aitaren esku.

23. Ama Balentziagarekin jostun lanetan

- **Erref:** DON-031/026
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 01:04:13. **Bukatu:** 01:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Ama Ategorrietan bizi izan zen, Okendo kalean jaioa izan arren. Balentziagarenean hasi zen josten ikasten eta lanean gero, bi ahizparekin batera. Emakumeen jantziak jostea gustatzen zitzaion gehien.

24. Seminarioko bizimodua I

- **Erref:** DON-031/027
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 01:08:08. **Bukatu:** 01:12:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Beiretik Balmasedara, Aguraindik Ozkabartera, eta Salamankatik Madrilera, luzea zen orduko apaiz karrera.

25. Seminarioko bizimodua II

- **Erref:** DON-031/028

- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:12:08. **Bukatu:** 01:14:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Eguna ikasten igaro behar izaten zuten, eta otoitzean bestela. Aisialdirako tarte gutxi izaten zuten.

26. Seminarioan ere gaztelaniaz

- **Erref:** DON-031/029
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:14:51. **Bukatu:** 01:16:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Seminarioan euskaldunak baziren arren, elkarrekin gaztelaniaz aritzen ziren, euskarazko liburu bakar bat ere ez zuten. Euskararen aurkako jazarpena normalizat hartzen zuten orduan.

27. Dantzari taldearen sorrera

- **Erref:** DON-031/030
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:16:02. **Bukatu:** 01:17:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Fraide bizkaitar bati dantzari taldea osatzea otu zitzaion, Patxiren aitarekin harremanetan jarri eta Inozentzio Urkia dantzari ohiarekin jarri ziren kontaktuan, eurei dantzan irakasteko.

28. 'Bioztun' dantza taldea

- **Erref:** DON-031/032
- **Iraupena:** 0:03:43. **Hasi:** 01:18:43. **Bukatu:** 01:22:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Dantza taldea mutilez bakarrik zegoen osatua. Hainbat fraidek ez zuten begi onez ikusten neskak horretan aritzea. Patxik txistua jotzen zuen taldean, seminariora alde egitean, larri ibili omen ziren txistulariren bat aurkitzeko.

29. Dantzarako jantziak

- **Erref:** DON-031/033
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:22:26. **Bukatu:** 01:24:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gerriko gorriak eta txapel beltzak. Dantzarako jantziak norberak prestatu behar izaten zituen etxean. Lehenengo saioa Ategorrietako jaietan egin omen zuten. Jendeak pozik eta txaloka hartu zituen.

30. Auzoetako jaiak

- **Erref:** DON-031/035
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 01:24:20. **Bukatu:** 01:27:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Auzoetako jaietan egitarau zabala izaten zen; dantzaldiak, jolasak, txokolatadak... Ulian, Manteon, hainbat lekutan ospatzen ziren jaiak. Ba omen zegoen auzoan galiziar bat, Santiago egunaren bueltan jaiak antolatzen zituena Sagüesen.

31. Donostiako hondartzak

- **Erref:** DON-031/036
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:27:18. **Bukatu:** 01:30:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Kontxako hondartzara joaten ziren bainatzera, edo Ulia mendiaren beste aldera. Zurriolako hondartza bezala ezagutzen duguna gerora sortu zuten, hesiak moldatu eta kanpotik hondarra ekarrita.

32. 'Gran Kursaal'

- **Erref:** DON-031/037
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:30:09. **Bukatu:** 01:32:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Aste Nagusian Kursaaleko muturretik botatzen zituzten su-artifizialak, 'Gran Kursaal' jokurako, antzerki eta zinema aretoz beteriko eraikin dotorea bertan zegoen garaian.

33. Zezenketak; Xixonen eta Txofren

- **Erref:** DON-031/038
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:32:47. **Bukatu:** 01:35:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Patxi Xixonen zezenzaletu zen. Xixonen zezen plaza parrokiaren barruan omen zegoen, eta apaizek zezenketetara joan behar izaten omen zuten laguntzera. Txofreko zezen plazara aberatsak gerturatzen ziren gehien, kotxe dotoreetan.

34. Gerra aurreko automobilak

- **Erref:** DON-031/039
- **Iraupena:** 0:05:30. **Hasi:** 01:35:08. **Bukatu:** 01:40:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Herria, azpiegitura » Garraioak

Laburpena:

<p>Garai hartan kotxe askorik ez zen ibiltzen, eta gehienak zaharrak ziren, gerra aurrekoak: Citroën, Fiat... Kontrabandista baten istorioa ere kontatzen du Patxik.</p>

35. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-031/041
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:40:46. **Bukatu:** 01:42:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Indioak eta bakeroak, kanikak, ezpatak... halako jolasekin aritzen ziren jolasean. Neskak txingotan ere bai. Asmatu egin behar izaten zituzten jolas asko, edo egin: pilotak, ezpatak, geziak, eta abar. Orduko haurrek irudimen handia zuten.

36. Fruta lapurreta

- **Erref:** DON-031/042
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:42:30. **Bukatu:** 01:43:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak

Laburpena:

Bazekiten Ulian non zeuden melokotoiak, udareak, sagarrondoak... lapurtutakoa beti izaten omen zen etxekoa baino hobea.

37. Elkarte gastronomikoak

- **Erref:** DON-031/044
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:45:43. **Bukatu:** 01:47:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Elkarte gastronomikoak

Laburpena:

'Ulia', 'Umore ona', 'Gure Txokoa'... elkarte gastronomikoena aspalditik datorren kontua omen da. Egitura eta funtzionamendu berezia dute, gainera. Aita 'Itxas-gain' elkartearen sortzaileetako bat izan zen.

38. Tanborrada

- **Erref:** DON-031/045
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 01:47:41. **Bukatu:** 01:51:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Donostia betidanik izan omen da berezia, egun hamaika txokotara iritsi den tanborrada bera ere, Donostian asmatua omen da. Patxik gogoan du Agurainen lehenengo aldiz tanborrada egin zutenekoa.

39. Donostiaren garapena

- **Erref:** DON-031/047
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:51:57. **Bukatu:** 01:54:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

XIX. mendean hasi omen zen Donostia pixka bat garatzen. Turismoari begira eta abar, gauza on asko egin izan direla dio Patxik.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com